

- 1 Osagarrietarako hutsunea
- 2 Elkarrizketa-taldearen botoia
- 3 Bolumenaren botoia
- 4 Egoera-adierazle LED argiduna
- 5 Albo-botoi programagarria
- 6 Sakatu eta hitz egiteko botoia (PTT)
- 7 Funtzio-tekla
- 8 Bidaltzeko tekla
- 9 Bozgorailua
- 10 Beheko mikrofonoa
- 11 O formako koloretako eraztun bat duen antena
- 12 Larrialdietako botoia
- 13 Goiko mikrofonoa
- 14 Albo-konektorea
- 15 Pantaila
- 16 Menuaren tekla
- 17 Pizteko eta itzaltzeko / Amaitzeko / Hasierara joateko tekla
- 18 Lau norabideetako nabigazio-tekla
- 19 Teklatu alfanumerikoa
- 20 Beheko konektorea
- 21 Bateriaren kisketa


Egoera-adierazle LED argiduna

Adierazlea	Egoera	Kargatze-egoera
Berde finkoa	Erabiltzeko prest	Erabat kargatuta
Berde keinukaria	Lanean	% 90 kargatuta
Gorri finkoa	Ez dabil	Kargatze bizkorra
Gorri keinukaria	Sare batera konektatzen DMO moduan sartzen	Bateriak akatsa du edo ez du balio
Laranja finkoa	Transmisioa galarazteko modua (Transmit Inhibit) abian Kanala okupatuta dago DMO moduan	-
Laranja keinukaria	Dei pribatu bat edo telefono-dei bat jasotzen	Bateria kargatzeko zain dago
Adierazlerik ez	Itzalita	-

Bateriaren ahalmenari buruzko informazioa


Informazioa	Azalpena
	Osoa (ahalmenaren % 80-100)
	Ertaina (ahalmenaren % 60-80)
	Txikia (ahalmenaren % 25-60)
	Oso txikia (ahalmenaren % 5-25)
	Ahalmenaren % 5 baino gutxiago

Bateria instalatzea



Sartu bateria konpartimentuan.
Irrista ezazu irratia ren goialderantz klik egin arte.

Antena eranstea



Itzali irratia antena erantsi baino lehen.
Lerrokatu antenaren behealdea eta torlojuz lotutako oinarria irratia ren goialdean.
Bira ezazu erloju-orratzen noranzkoan doitu arte. Ez ezazu indarririk egin.

Irratia desblokeatzea

Baliteke irratia blokeatuta egotea piztean. Piztu ondoren irratia desblokeatzeko, idatzi kodea abisuan nabigazio-teklak erabilita. Irratia desblokeatzeko kode lehenetsia 0000 da. Baliteke zerbitzu-hornitzaileak zenbaki hori aldatzea zuk irratia jaso aurretik.

Teklatua desblokeatzea/blokeatzea

Teklatua desblokeatzeko/blokeatzeko, sakatu menuaren tekla eta, gero, * tekla.

Irratiari eustea

Irratiak bi mikrofono ditu:

- Goiko mikrofonoa, taldeko dei bakunak, igorgailuko deiak edo dei pribatuak egiteko
- Beheko mikrofonoa, dei bikoitzak eta telefonokoen moduko deiak egiteko

Dei bikoitzak egitean (bolumen txikia), eutsi irratia ren telefono bat balitz bezala. Hitz egin beheko mikrofonorantz. Entzun aurikularretik. Kokatu antena burutik eta gorputzetik gutxienez 2,5 zentimetroa.



Dei bakunak egitean (bolumen handia), eutsi irratia ren bertikalean, goiko mikrofonoa ahotik 5-10 zentimetroa dagoela. Hitz egin goiko mikrofonorantz. Entzun irratia ren barruko bozgorailutik. Kokatu antena burutik eta gorputzetik gutxienez 2,5 zentimetroa.



Irratiari buruzko informazio gehiago

Bisitatu Motorola Solutions-en webgunea:
<http://www.motorolasolutions.com/>

Motorola Online

Eginbideei buruzko erabiltzailearen gida eta erlazioatutako dokumentazioa hemen eskuragarri: <https://emeaonline.motorolasolutions.com/>

Kode irekiko softwarearen lege-oharrak

Hemen eskuragarri: <https://emeaonline.motorolasolutions.com/> eta Customer Programming Software Plus (CPS Plus) DVDa



Dokumentu hau copyright bidez babestuta dago. Hein egokian kopia daiteke Motorola-ren produktuak erabiltzeko. Aldiz, ezin da kopia beste helburu batzuetarako, ezta ezer aldatu, gehitu edo bestelakorik egin ere. Dokumentu elektronikoa hau soilik hartzen da jatorrizkotzat. Gainerakoak kopiak baino ez dira izango. Motorola Solutions, Inc. enpresak eta haren filial eta bazkideek ez dute bermatzen kopia horiek zuzenak direnik.

MOTOROLA, MOTO, MOTOROLA SOLUTIONS eta M estilizatuaren logotipoa Motorola Trademark Holdings, LLC enpresaren marka erregistratuak dira, eta lizentziapean erabiltzen dira. Gainerako marka erregistratuak beren jabeenak dira.
© 2015 eta 2020. Motorola Solutions, Inc. Eskubide guztiak erreserbatuta.



MN007602A01-BA



MTP3550 GIDA BIZKORRA

Ikonoak

Ikonoa	Azalpena
	Lanean (TMO)
	Zerbitzurik gabe (TMO)
	Seinalearen indarra
	Modu zuzena (DMO)
	Larrialdi modua
	Bilaketa (TMO)
	Lehentasunezko bilaketa (TMO)
	Bateriaren maila
	Bateria kargatzen
	Tonu guztiak desaktibatuta
	Dei bakunen tonua desaktibatuta
	Dei bikoitzen tonua desaktibatuta
	Bluetooth bidezko konexioa aktibatuta/desaktibatuta

Ikonoa	Azalpena
	Migrazioa
	Bolumen txikia
	Bolumen handia
	Aurikularra konektatuta
	Bozgorailua desaktibatuta dago
	Mezu berri bat duzu
	Mezu berria(k)
	Paketeko datuak gaituta
	Paketeko datuak igortzen
	RF potentzia handia
	Irratiko teklak blokeatuta
	Kokapena

Irratia piztea/itzaltzea

Irratia pizteko/itzaltzeko, eduki sakatuta **pizteko/itzaltzeko** tekla.

Irratiko menua erabiltzea

Menuan sartzeko, sakatu **menuaren** tekla.

Menuan gora eta behera egiteko, sakatu gora eta behera egiteko nabigazio-tekla. Menuko elementu bat hautatzeko, sakatu **Select** (hautatu) edo eskuinera egiteko nabigazio-tekla.

Aurreko mailara itzultzeko, sakatu **Back** (atzera) edo ezkerrera egiteko nabigazio-tekla. Menuetik irteteko, sakatu **hasierara joateko** tekla.

Egoera-mezuak bidaltzea

Hautatu helburuko elkarrizketa-taldea; gero, sakatu **menuaren** tekla eta hautatu **Messages** (mezuak) > **Send Status** (bidali egoera). Nabarmendu egoera-mezu bat eta sakatu **bidaltzeko** tekla edo **PTT** hura bidaltzeko.

SDS mezuak bidaltzea

Hasierako pantailan, sakatu **menuaren** tekla. Hautatu **Messages** (mezuak) > **New Message** (mezu berria). Idatzi mezu eta hautatu **Send** (bidali). Hautatu **Private** (pribatua) edo **Group** (taldekoa). Idatzi ID pribatu bat edo aukeratu talde bat.

TMO/DMO hautatzea

Hasierako pantailan, sakatu **Optns** (aukerak) eta, gero, hautatu Trunked Mode (enbor modua) edo Direct Mode (modu zuzena).

TMO/DMO moduan taldeko deiak egitea

Sartu TMO edo DMO moduan. Hasierako pantailan, erabili elkarrizketa-taldearen botoia edo nabigazio-teklak helburuko elkarrizketa-taldea nabarmentzeko. Sakatu **Select** (hautatu) (konfiguratuta baldin badago). Eduki sakatuta **PTT**. Itxaron hitz egiteko baimenaren tonua entzun arte (konfiguratuta baldin badago) eta hasi hitz egiten. Askatu **PTT** entzuteko.

TMO/DMO moduan taldeko larrialdi-deiak egitea

Sartu TMO edo DMO moduan. Eduki sakatuta **larrialdietako** botoia. Larrialdietako alarma bidaltzen da automatikoki (konfiguratuta baldin badago). Eduki sakatuta **PTT**. Itxaron hitz egiteko baimenaren tonua entzun arte (konfiguratuta baldin badago) eta hasi hitz egiten. Askatu **PTT** entzuteko. Hot Mic eginbidea erabiliz gero, itxaron "Emgcy Mic On" mezua pantailan agertu arte eta hitz egin **PTT** sakatu gabe.

Larrialdi modutik irteteko, eduki sakatuta **irteteko** funtzio-tekla.

Dei pribatu bakunak egitea

DMO MODUAN: Hasierako pantailan, markatu zenbaki bat. Eduki sakatuta **PTT** deitzeko eta hasi hitz egiten (itxaron hitz egiteko baimenaren tonua entzun arte, konfiguratuta baldin badago). Askatu **PTT** entzuteko. Sakatu **amaitzeko** tekla deia amaitzeko.

TMO MODUAN: Hasierako pantailan, markatu zenbaki bat. Sakatu eta askatu **PTT** deitzeko. Itxaron hartzaileak hartu arte. Deia hastean, eduki sakatuta **PTT** hitz egiteko (itxaron hitz egiteko baimenaren tonua entzun arte, konfiguratuta baldin badago). Askatu **PTT** entzuteko. Sakatu **amaitzeko** tekla deia amaitzeko.

Dei pribatu / Telefono-dei / PABX dei bikoitzak egitea

Hasierako pantailan, markatu zenbaki bat. Dei mota aldatzeko, sakatu **Ctype** (dei mota). Sakatu eta askatu **bidaltzeko** tekla. Dei-tonuak joko du. Hartzaileak erantzungo du. Sakatu **amaitzeko** tekla deia amaitzeko.

Jasotako deiei erantzuteko, sakatu **bidaltzeko** tekla.

Irratia Bluetooth bidezko gailuekin parekatzea

Hasierako pantailan, sakatu **menuaren** tekla eta hautatu **Bluetooth** > **Scan for Accessories** (bilatu osagarriak). Nabarmendu behar duzun gailua eta hautatu **Pair** (parekatu). Behar izanez gero, idatzi PIN kodea edo pasahitza.

Ikonoak

www.motorolasolutions.com

Terminala erabiltzea

www.motorolasolutions.com